

**2019ko APIRILAREN 2ko
UDAL OSOKO EZOHICO BILKURA**

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2019ko apirilaren 2an, goizeko zazpi t´erdietan Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Miren Amaia Askasibar Agirre
- Maite Bizkarrondo Arzallus

Ez da/dira batzarreratu

- Goreti Soroa Martinez

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 07:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAIEN ZERRENDA:

BAKARRA.- 2019KO GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTUKO DUTEN HAUTESKUNDE MAHAIEK IZENDATZEA.

Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, deialdi ondorengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean, Udalek Hauteskunde Mahaiak osatzera jo behar dute, Eskualdeko Hauteskunde Junten gainbegiratupean

Martxoaren 4ko E.A.O.-ean 129/2019 Errege Drekretua argitaratzen da, zeinaren bitartez datorren apirilaren 28an egingo diren Espainiako Kongresu eta Senaturako Hauteskundeen deialdia egiten den, hautatu beharko direlarik, Espainiako Kongresu eta Senatuko osaketa berria.

Ondorioz, hauteskunde mahaien osaketa martxoaren 30etik apirilaren 3ra arte egin behar da.

5/1985 Legearen 26. aipaturiko artikulua 2. atalean, Lehendakaria eta Bokalak dagokion Sekzioan erroldatutako pertsona guztien artean zozketaz izendatuak izan behar dutela ezartzen da, irakurtzen eta idazten dakitenak eta Lehendakariak Batxilerreko edo bigarren mailako Lanbide-Hezkuntzako titulua izan behar du, edo subsidiarioki, Eskola-Gradudunarena edo baliokidea

Ondorio horietarako, apirilaren 28ko datarekin Alkatetzak Iragarki bat argitaratzea erabaki zuen, aparteko bilkura hau ospatzeko lekua, eguna eta orduaren berri emanez, aurrez aipaturiko zozketa publikoaren gauzatzea joko denaren barruan.

Hauteskunde Junta Zentralaren errepikatutako doktrinaren arabera, Udaltzari dagokio hauteskunde mahaien kideen izendapena.

Hala bada, zozketa publikoa egitera jo ondoren eta bere emaitzarekin bat etorritik, Udaltzariak, aho batezko adostasunez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:

Jarraian aipatzen diren hauteskunde mahaietako lehendakariak eta kideak izendatzea:

Mahaiburua: Idurre Imaz Amiano

Mahaiburuaren 1.ordezkoa: Olatz Labaien Matxinea

Mahaiburuaren 2.ordezkoa: Ines Diaz Urbistondo

1. Mahaikidea: Ane Egues Kerexeta

1. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Jesus Maria Aldunberri Urkizu

1. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Rocio Muñoz Garcia

2. Mahaikidea: Amaia Artola Errazkin

2. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Maite Bizkarrondo Arzallus

2. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Miren Edurne Santa Cruz Ibarbia

Egoera honetan, 07.50 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren isla zehatza dena. Fede ematen dut.

Elduain, 2019ko apirilaren 2an.

O.e.
Alkateak

Idazkari-Kontuhartzaileak,

Jose Angel Urkizu Odriozola

Maria Pilar Garmendia Miguel